

GAZTE EKINTZAILITZA PROGRAMA: OHIKO GALDERAK

1. Zenbateko iraupena dauka programak?

Ikasturte osokoa. Programaren irekiera ekitaldia azaroan izango da, jarraian formakuntzaren lehenengo saioak izango direlarik. Mentoreak abenduan esleituko dira, eta beraiekin lan egiteko tarte urtarrietik ekainera bitartean izango da.

Bukatzeko, programaren itxiera ekitaldia uztailaren lehenengo hamabostaldian egingo da, eta bertan programan zehar garatutako proiektua aurkeztu beharko da.

2. Ikastaroa eta mentoring programa.

Ikastaroan parte hartzea derrigorrezkoa da; baita *mentoring* programan ere. Gainera, ikastaroa aurrez aurrekoa da, eta bertan parte hartu dela kontsideratu ahal izateko beharrezkoa da saio gehienetara joatea. **Horregatik, beharrezkoa da beka jasotzen dutenek ikastaroan aurrez aurre egoteko prest izatea.**

Ikastaroa 7 moduluz osatuta egongo da, 2024-2025 edizioan Donostian egingo direnak. Ikastaroaren saio nagusiak azaroaren 19tik 22ra izango dira; otsailean, martxoan eta maiatzean beste saio bana izango delarik. Saioen ordutegia 10:00etatik 14:00etara izango da.

DATA	LERUA	EDUKIA
2024ko azaroaren 18a Astlehena	AUDITORIOA, Korta	Irekiera-saioa: Programaren aurkezpena
2024ko azaroaren 19a Asteartea	AUDITORIOA, Korta	1 modulua
2024ko azaroaren 20a Asteazkena	Zipitria, 1.12 gela	2 modulua
2024ko azaroaren 21a Osteguna	Zipitria, 1.12 gela	3 modulua
2024ko azaroaren 22a Ostirala	Zipitria, 1.12 gela	4 modulua
2025ko otsailaren 28a Ostirala	Zipitria, 1.12 gela	5 modulua
2025ko martxoaren 28a Ostirala	Zipitria, 1.12 gela	6 modulua

2025ko maiatzaren 9a Ostirala	Zipitria, 1.12 gela	7 modulua
2025eko uztailaren 4a Ostirala	AUDITORIOA, Korta	Itxiera-saioa: Proiektuen ebaluazioa

Mentoring programa formatu aldetik malgua izango da: aurrez aurrekoa eta modu telematikoa erabili ahal izango dira.

3. Erregistro elektronikoa. Zer da? Zertarako da?

[Erregistro elektronikoa](#) idatziak, eskabideak edo komunikazioak aurrez aurre aurkezten deneko berme berekin aurkezteko aukera ematen du.

Eskabide, idatzi eta komunikazioak urteko edozein egunetako 24 orduetan aurkeztu ahal izango dira.

Erregistro Elektronikoa [Erregistro Nagusia](#)ren osagarria da, baina soilik dago prestatuta bitarteko elektronikoen bidez igorritako izapide eta prozedura jakin batzuei lotutako komunikazioak, idatziak eta eskaerak aurkezteko. Prozedura horiek argitaratuta daude Erregistro Elektronikoaren Prozeduren Katalogoan.

Aurrez aurreko erregistroa eta Erregistro Elektronikoa elkartuta egongo dira; beraz, UPV/EHUko Erregistro Nagusiaren [bulego/lehiatila guztiak](#) erabili ahal izango dira.

4. Nola jakin dezaket UPV/EHUK nire eskaera edo idatzia jaso duela Erregistro Elektronikoan?

Erregistro Elektronikoak eskaera edo idatzia aurkeztu izanaren egiaztagiria igorriko du automatikoki. Horretan, jasota geratuko dira pertsona interesdunaren datuak, harrera-data eta -orduaren egiaztapena, eta esleitutako sarrera-zenbakia. Ziurtagiri hori UPV/EHUK sinatutako fitxategi elektronikoa bat da, eta legezko balioa dauka. Eskuratzeko, "jai" botoia sakatu behar da, eta ziurtagiri gisa gorde.

5. Zer ziurtagiri onartzen ditu UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa?

Ziurtagiri digital batek bere titularra identifikatzea ahalbidetzen du. Ziurtatzen du komunikazio elektronikoa erabili duen pertsonaren identitatea, eta, datuak edo dokumentuak sinatzeko erabiliz gero, bermatzen du horietan ez dela aldaketarik izan.

Ziurtaginerako Agintaritza batek igortzen ditu ziurtagiri digitalak. Honako hauek erabil daitezke: UPV/EHUren txartel korporatiboa, eta herritarren txartelak (www.izenpe.com), Diruaren eta Zerga Ziguilaren Fabrika Nazionalak igorritako ziurtagiriak (www.cert.fnmt.es), eta, nolahi ere, NAN elektronikoa (www.dnielectronico.es) eta UPV/EHUren egoitza elektronikoa jasotako beste ziurtagiri guztiak.

6. Zer baldintza tekniko eduki behar ditut Erregistro Elektronikoa erabili ahal izateko?

<https://egoitza.ehu.eus/eu/requisitos-tecnicos>

- Sinadura digitaleko ziurtagiri baliadun bat, UPV/EHUK onartutakoa (dagozkion kode pribatuekin)..
- Java-ren bertsio bateragarria (www.java.com).
- Web nabigatzaile egoki bat:
 - o Microsoft Internet Explorer-en 6. bertsioa edo hortik gorakoa.
 - o Mozilla Firefox-en 2.x eta 3.x bertsioak

7. Erregistro Elektronikoa nola aukeratu dezaket Gipuzkoako Enplegu Gunea?

"Jasotzailea" atalean, aurrena "Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordetza" aukeratu.

Eskatzen du

Jasotzailea

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko Errekt. / Vicerrect. Estudiantes y Empleabilidad ()

Gipuzkoako Enplegu Gunea / Centro de Empleo de Gipuzkoa (U02000343)

Arabako Enplegu Gunea / Centro de Empleo de Álava (U02000340)

Arreta Psikologikorako Zerbitzuaren Zuzendaritza / Dirección del Servicio de Atención Psicológica (U02000345)

Bizkaiko Enplegu Gunea - Leioa / Centro de Empleo de Bizkaia - Leioa (U02000342)

Bizkaiko Enplegu Gunea - Sarriko / Centro de Empleo de Bizkaia - Sarriko (U02000341)

ENLIGHT-en Zuzendaritza / Dirección de ENLIGHT (U02000379)

Ezgaitasunak Dituzten Pertsonentzako Zerbitzua / Servicio de Atención a Personas con Discapacidades (U02000325)

Gipuzkoako Enplegu Gunea / Centro de Empleo de Gipuzkoa (U02000343)

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko Errekt. / Vicerrect. Estudiantes y Empleabilidad (U02000285)

Ikasleen Zuzendaritza / Dirección de Estudiantes (U02000337)

Latinoamerikako Graduondoko Sarearen Zuz. / Dir Red Latinoamericana de Posgrado (U02000412)

Datuen Babesa Euskal Herriko Unibertsitatea

Erabiltzaileei laguntza Barrio Sarriena s/n, 48940 - Leioa, Bizkaia - España

Irisgarritasuna e-administrazioa@ehu.eus

Konektatu UPV/EHUrekin

Instagram Twitter Facebook LinkedIn YouTube

8. Arazoak ditut Erregistro Elektronikorekin. Zer egin dezaket?

<https://egoitza.ehu.eus/eu/soporte>

- Gai teknikoetarako kontaktua: [CAU](#)
- Gai funtzionaletarako kontaktua: e-administrazioa@ehu.eus
- Gidaliburuak: [Gidak](#)
- Eskura dauden ohiko galderak: [FAQ](#)

9. Erregistro Elektronikoz aparte, ba al dago beste modurik eskaera bidaltzeko?

Bai. Alde batetik, adibidez, Correos-ek dituen bulegoen bidez, gutun ziurtatua bidalita [Gipuzkoako Enplegu Gunera](#).

Bestetik, hirugarren galderan azaldu bezala, aurrez aurreko erregistroa eta Erregistro Elektronikoa elkartuta daude; beraz, UPV/EHUko Erregistro Nagusiaren edozein [bulego/lehiatila](#) erabili ahal izango da ere.